

**2008ko MARTXOAREN 13an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko martxoaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen du: Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - **2008ko otsailaren 7an ospatutako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **B. XX-ekz. Etxebizitzeko terrazaren handitzea burutzeko obrak legeztatze baimena ematea, hala badagokio.**
4. **B. B. etxearen ataria eta sahitseko bidea hormigonatzeko baimena ematea, hala badagokio.**
5. **U. etxe aurrean brea botatzeko baimena ematea, hala badagokio.**
6. **Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskeraren onespena, hala bada.**
7. **2008 ekitaldirako Trakzio Mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala badagokio.**
8. **2008 ekitaldirako udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea.**
9. **Fakturak eta ordainketak.**
10. **Beste batzuk.**
11. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2008 urteko otsailaren 7an Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

02/2008 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 21ekoa, Kultur etxeko obrak amaitu ondoren herriko emakume talde bati kultur etxea garbitzeagatik 600 eurotako laguntzea ematea ebazten duena.

03/2008 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 22koa, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Larraul udalerriak osatzen duten bake-epaitegien idazkaritza-elkarteari 500 euotako diru-laguntza ematea ebazten duena (dituzten funtzionamendu gastuetarako).

04/2008 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 11koa, Larraulgo Udalak Fiats Mutua de Seguros etxetik jasotako 1.198,39 eurotako diru-kopurua katillu Txulo Elkarteari ematea ebazten duena (Izan dituen lapurretak sarrerako atean sortu dituen kalteen ordainketan).

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

B. XX-ezk. ETXEBIZITZAKO TERRAZAREN HANDITZEA BURUTZEKO OBRAK LEGEZTATZEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik G. U. jaunak eginiko eskaera, non B. XX-ezkerreko etxebizitzako terrazaren handitzea burutzeko egin dituen obrak legeztatze baimena eskaera egiten duela.

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoa den, E. E. andreak, 2008ko martxoaren 6an eginiko txostenean dioena:

“G. U. L. jaunak, B.G. XX-ezk. Etxearen legezkanpo dagoen terraza eta hau legeztatze baimena behar diren lanen aurrekontuak, momoria eta krokis batzuk aurkezten ditu.

Dokumentazioa eta aurreko txostenak azterturik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

2007-ko irailean egindako txostenean zera esaten zen:

LARRAULGO udalak lur hiritargarriko 3.1/4 unitadeko eraikinaren ezkerreko alboan obra baimenik gabe eraikitzen ari zen terraza ikusirik, 2007-ko uztailaren hasieran lanak gelditzeko eta legezatzeko idatzia luzatu zion etxeko jabeari.

Abuztuaren 28-an eta legezkanpo egin diren lan hauei irtenbide egokiena bilatzeko asmoz, bilera bat egiten da bertan, G. U. etxeko jabea, J. L. O. konstruktorea, Xabier Mujika Larraulgo alkatea eta ni neu udal Tekniko bezala biltzen garelarik.

Bertan ikusitakoa ondo aztertu ondoren eta Larraulgo araudiarekin bat egoteko, bi aukera ikusten ditugu bakarrik:

- 1. Terraza bota eta lehen zegoen moduan utzi, lanak egin aurretik dagokion eraispén proiektu bisatua aurkezten delarik udaletxean.*
- 2. Terrazaren azpialdea lurraz bete, beti ere, terrazaren aurrealdetik atzeko pareta ikusten delarik.*

Aukera honetan 1,20m alturako harrizko bukaera duen pareta bat erabili daiteke itxitura moduan.

Kasu honetan, lanen aurrekontua eta memoria txiki bat aurkeztu beharko da udaletxean lanak egin aurretik.

Terraza legezatzeko ekarri den dokumentazioan ikusten denez, azkeneko aukera hau hartu da baliabide bezala.

Udaletxean aurkeztutako dokumentazioak fase ezberdinak izan ditu:

2007-ko abenduan aurkeztutako dokumentazioan ez zen kontentziosko paretarik azaltzen.

2008-ko urtarrilean aurrekontu berria ekartzen da; bertan pareta azaltzen da baina ez tartea betetzeko lurra. Otsailean azkenik, aurrekontu egokitua aurkezten da udaletxean terraza legezatzeko egin behar diren lan guziekin.

Beraz, eta oraingoan Larraulgo araudia betetzen denez, egokia izango da udal baimena ematea egindako lanak legezatzeko.

Dena den, obra bukatu ondoren, terraza berriaren eta harrizko bukaera duen eustormaren itxitura azaltzen den argazkia entregatu beharko da udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: G. U. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, B. XX-ek. Etxebizitzeko terrazaren handitzea burutzeko obrak legezatzeko baimena ematea, betiere, Udal Teknikariak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

LAUGARREN PUNTUA

B. B. ETXEAREN ATARIA ETA SAHIETSEKO BIDEA HORMIGONATZEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik I. U. A. jaunak eginiko eskaera, non B. B. etxearen ataria eta sahietseko bidea hormigonatzeko baimena eskaera egiten duela.

Ikusirik 2008ko otsailaren 18an, Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. andreak eginiko txostenean dioena:

“I. U. jaunak, Larraulgo B. B. etxearen ataria eta sahietseko bidea konpontzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

B. B. etxea, Larraulgo lur-hiritargarran kokatua dago.

Larraulgo arauen 50º artikulua herri bideak arautzen ditu. Bertan, herri bideak hormigoizko edo asfaltiko bukaera izan dezaketela esaten da.

Arauen 84ª artikulua ere, gaur egun lur ez hiritargarran dauden pista eta bideen sarrerak kontsolidatzen direla esaten du.

B. B. etxearen urbanizazioaren konponketa, zaharraren hobekuntza bat denez, egokia izango da udal baimena ematea.”

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENENGOA.- I. U. A. jaunak, eginiko eskaera onestu, hau da, B. B. etxearen ataria eta sahietseko bidea hormigonatzeko baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

BOSGARREN PUNTOA

U. ETXE AURREAN BREA BOTATZEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik J. A. jaunak eginiko eskaera, non U. etxe aurrean brea botatzeko baimena eskaera egiten duela.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. andreak 2008ko otsailaren 11an eginiko txostenean dioena:

“J. A. jaunak, Larraulgo U. etxearen aurrealdean dagoen breazko lurra konpontzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua eta deskribapen txiki bat aurkezten duelarik.

Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

U. etxea, Larraulgo lur-hiritargarran kokatua dago.

Larraulgo arauen 38º artikulua honela dio:

Artículo 38.- Cierres de parcela.

Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.

Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.

Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.

Asfalto zaharra berriagatik aldatzea dela ikusirik eta partzela pribatuaren berdegunea %50 baino gutxiago ez bada, egokia izango da udal baimena ematea.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- J. A. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, U. etxe aurrean brea botatzeko baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN HOBARI ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik J. A. Z. E. jaunak aurkeztu duen idatzia non XX-XXXX-X, ibilgailuak 25 urte baino gehiago dituela eta 2008 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobaria eskatzen duena.

Ikusirik Idazkari andreak adirazi duela 2008 urterako udal zergak arautzen dituzten ordenantzetan ibilgailu historikoei trakzio mekanikodun ibilgailuen zergan %50-eko hobaria aurreikuten dela.

Bertaratuek, gaia aztertutik

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J. A. Z. E. jaunak aurkeztutako eskaera onartzea eta XX-XXXX-X ibilgailuaren gainean 2008 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren %50-eko hobaria onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2008 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkate jaunak 2008 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udala Zergaren Erroldaren berri ematen du, zeinaren zenbateko osoa 12.158,17 eurotako den.

Bertaratuek, aipatu errolda fiskala aztertutik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2008 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendeaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2008 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2008ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartekoa izatea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2008 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2008 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2008ko martxoaren 7an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2008 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onatzea 340.206,80 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK

I. Kap. PERTSONAL-GASTUAK	83.460,00
II. Kap. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	113.350,00
III. Kap. FINANTZA-GASTUAK	8.150,00

IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	75.405,56
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK	40.791,24
VII. Kap. KAPITAL TRASFERENTZIAK	6.200,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZIARIOAK	12.850,00
GUZTIRA GASTUAK	340.206,80

SARRERAK

I. Kap. ZUZENEKO ZERGAK	35.500,00
II. Kap. ZEHARKAKO ZERGAK	2.000,00
III. Kap. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	37.600,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	231.252,89
V. Kap. ONDARE-SARRERAK	4.363,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. Kap. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	29.490,91
IX. Kap. PASIBO FINANTZIEROAK	0,00
GUZTIRA SARRERAK	340.206,80

BIGARRENA.- 2008ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzak aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarterartzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

UROLA TUBOS	140,22
ATE	121,80
KIROLZER	124,20
KIROLZER	136,05
ARGITU ASESORES	145,35
VIVEROS URKI ONDO	55,64
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	62,71
EUSKOTEL	297,95

ZELAI	21,19
ZELAI	30,67
GALPARSORO INDUSTRIAL	17,97
GALPARSORO INDUSTRIAL	9,81
E. E.	526,32
ASTEASUKO GURASO ELKARTEA	377,00
JOSE ANTONIO GOYA	600,00
IBERDROLA	142,58
IBERDROLA	19,38
IBERDROLA	59,43
IBERDROLA	172,87
IBERDROLA	37,93
IBERDROLA	865,26
IBERDROLA	274,55
IBERDROLA	124,77
IBERDROLA	279,18
IBERDROLA	335,92
TELEFONICA	20,36
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	90,10
TELEFONICA	29,74
EUSKALTEL	149,00
REPSOLGAS	407,19
REPSOLGAS	238,98
PAPERTXULO	32,35
GARAJE EKIN	306,75
LOURDES PEREZ PATXO	290,00
MANPEL	35,84

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.595,27** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA